

Errogatibak

Hondarribia, 14. zk., 1987-06: 5.

Joan berria zaigu maiatza eguraldiz oso aldakorra eta nahasia izan dugu; hegoarekin jaiki eta gauerako ipar fina; haize mendebala zurrunbiloan ordu batetik bestera; otza orain, eta sargoriaren itobeharra abiadan... Jertsia kendu, jantzi, bota, jaso eta lepotik eseki dena ia ordu baten barruan!

– Erreuma honek baldatuko nau oraingo honetan! –dio espigoinaren hasieran eserita haurtxo bat zaintzen dagoen amonak.

Ni ondoan nago, eta eguraldiaz kexa neu ere, egia hutsa baita.

Nire eskuinean dagoenak ere badu zer esanik: "Hemen errogatibarik gabe ez da eguraldirik konponduko"... Begiratzen diot ezezagunari: "Bai, bai –esaten dit txapelaren azpitik– ez dakit zeuk sinesten duzun... baina neu horretan nago.

Eta itsasora begira geratu da.

Hirurogeita hamar bat urte izango ditu, txukun jantzia dago, makiltxo mehe bat eskuan, oinetan espartin urdinak... "Ez al didazu sinesten?", desafioa begietan; neroni kurioso samarra izan eta baietz esan diot.

– Hara –jarraitu du gizonak– ni, neu, gaur kaletarra naiz, baina baserrian jaio nintzen eta bertan hamaika lan egina naiz; baita fabrika ere, baina dakiten guztia nire amonagandik baserrian ikasi nuen... Errogatibak, diot, zeuk badakizu hori zer den?...

– Noski ba...

Gizona zearo nireganatu dut.

– Lehorte handitarako bakarrik erabili behar da; hemen eguzkia eta hegoa dira beldurgarrienak; itotzen zaituzte, batez ere ganadua! Seinaleen zain egon behar da; muskarrak abesten badu, lehorte handia; muxarra pago zuloetan sartzen bada, berdin, hegoa; sukaldeko sua txinpartaka hasten bada, txarra... Parrez zaude?... hor dago errogatibaren beharra!

– Eta euririk egiten al du?...

– Bai, noski! Ez al didazu sinesten?

– Baietz; eta euritea nagusitzen bada? –diot gizonari– euriak ere egiten ditu kalteak...

– Bai, noski; honetarako ere badira seinaleak: hara, armiarma beltza jeisten bada, edo lurretik arrak eta txingurriak irteten hasten badira, euria; berdin xixareak gehiegi mugitzen hasten direnean; behiak eta ardiak gorputza arrotu eta hastintzen hasten direnean, ekaitza...

– Ekaitzarentzat ere ba da errogatibarik?

– Bai, jauna –hasarratzen hasiko zait, itsasoari begiratzen badago ere tximistargiek zerua argitzen dutenean, gure herriko apaiza torrera igo eta bakarrik egiten ditu harriaren kontrako errezuak; eta hala eta guzti harria erortzen bada, hartzen ditu hiru harri eta surtara botatzen ditu...

- Adidazu -diot nik- baina lehorterako errogatibarik ez duzu aipatu...

-Ba, horixe, herri osoa joaten zen lehen apaiza eta monagiloak daraman gurutzearen atzetik, herri bakoitzak badu bere itzulia, eta gaur hartan biaramonean edo hirugarren egunera beranduen, ikusiko duzu euria goitik behera gozo-gozo goitik behera...

- Inbento zahartxoa ez al da hori? -galdetzen diot, zirikari... Eta ahal ere... lainorik agertzen ez bada?

- Ba, esango dizut neure herrian failatzen ez duena: ba dugu San Antonio bat, ba honek egin ditu milagroak, santua goitik bera urez buzti, edo, oraindik hobe, santua hartu eta putzuan sartu... eta euria derrepente!...

"Epa!... Badijoa autobusa!... Hurrengo bat arte..."

Eta han dijoa oraindik lirain-bizi arina dagoen gizona, txapela buruan, makitxo xume bat eskuan, jertsei bat bizkarrean, oinetako espadril urdinak oinetako.

Gaurko mirariak... Han sartzen da autobusean lehortarra. Hondarribiko itsasora txoratzen begira egondu den jubilatua.

Baserritarra eta jubilatua, hara beste inbentua!

Inbentu ona.

Ba, belarria adi jartzea besterik ez dago horrelako konfidentziak entzuteko.